



NIK, IDOIA MENDIA CUEVAK, JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIOKO SAILBURU ETA EUSKO JAURLARITZAKO IDAZKARI NAIZENAK, HONAKO HAU

ZIURTATZEN DUT:

Eusko Jaurlaritzak, 2010eko apirilaren 13an egindako bileran, besteak beste, erabaki hau hartu zuela:

ERABAKI-PROPOSAMENA, "2009-2013 IX. LEGEGINTZALDIKO EGITASMO ETA JARDUERA ESANGURATSUEN EGUTEGIA" ONARTZEN DUENA.

Gobernuaren jarduna planifikatzeko dokumentuak izan, koordinazioko lantresna bat dira, bi asmo dituztenak: gobernuaren jardueraren multzoa ordenatzea eta programatzea, disfuntzioak eta gainjartzeak saihesteko, eta gobernuaren jardunak ebaluatzeko bide bat egituratzea, hainbat neurri zuzentzaile eta berritzaile eranstea ahalbidetzeko.

Behin Eusko Jaurlaritzak honako legegintzaldi honetarako legegintza-egutegia onartu duenean, egoki iritzi zaio Gobernuaren egitasmo eta jarduera esanguratsuak identifikatuko dituen antzeko tresna bat edukitzeari, zer eta, Gobernuaren jarduna koordinatzeko bide bat edukitzeko, erabilgarri dauden bitarteko eta baliabideak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren multzoan integratzeko; behar izanez gero, arloarekin zerikusia duten gainerako administrazio publikoen lanarekin erkatzeko, eta hartzen diren neurrien segimendu eta ebaluazio eraginkorrari ekiteko neurriak hartzeko.

Era berean, Legegintza-Egutegiaren antzera, Jaurlaritzaren Egitasmo eta Jarduera Esanguratsuen Egutegia Gobernuaren jardunaren gardentasunean aurrera egiten duen mekanismo gisa sortu da, bai eta Legebiltzerra herritarrentzako gai interesgarrien eztabaidagune gisa eta Jaurlaritzaren jardunaren beraren kontrolgune izateko erabakia bultzatzeko tresna gisa ere.

Egitasmo eta Jarduera Esanguratsuen Egutegia dokumentu dinamiko gisa planteatu da, inguruko baldintza aldakorretara eta egutegia osatzen duten neurrien segimenduan eta ebaluazioan lortzen diren ondorioetara iragazkorra izango dena. Aurreikuspen bat da, beraz, eta lotuta dago balizko aldaketetara, hau da, bete beharko diren premia berrien edo sortuz joaten diren edo jarduera-eremu bakoitzean aurkitzen diren aukera, aldaketa edo gainerako gorabeheren arabera txertatuz joango diren aldaketetara.

Horregatik guztiagatik, 2009ko abenduaren 22ko Gobernu-Kontseiluaren Erabakiak prozedura bat xedatu zuen, ondoz ondoko bi alditan garatu beharrekoa, "2009-2013 IX. Legegintzaldiko Egitasmo eta Jarduera Esanguratsuen Egutegia" prestatzeko: lehenengoan, Jaurlaritzako sailetatik, egutegia osatzen duten neurrien proposamena egiteko ekimena jasoko zen, eta, ondorengoan, dokumentuaren erkatze eta egituraketa formala egingo, eta aldi hori, era berean, honetan burutuko da: Gobernu-Kontseiluan onarpena jasotzean, eta, gero, Legebiltzarrerara igortzean.

Sailetatik proposamenak jasotzeko prozesu horretarako, Koordinaziorako Idazkaritza Nagusia ahalmenu zen IX. legegintzaldirako Jaurlaritzaren egutegia osatuko duten egitasmo eta jarduera esanguratsuak identifikatzeko jarraibide batzuk ezar zitzen.

Jarraibide horiek proposatu zuten Jaurlaritzaren egitasmo edo jarduketara esanguratsu moduan soilik gobernuaren zereginaren ildo batzuk txertatzea, batik bat honako hauekin bat datozenak: lehentasun politikoak, herritarren lehen mailako kezak, eta, gainera, aldaketa garrantzitsuak, berrikuntza edo barneko eta kanpoko eragin handia ekarriko dutenak. Irizpide horietako batzuk batera etortzeak ahalbidetu du, hain zuzen ere, Jaurlaritzaren konpromisoa erabaki honen bidez onartzen den "2009-2013 IX. Legegintzaldiko Egitasmo eta Jarduera Esanguratsuen Egutegia" izeneko dokumentuan eratzea. Egutegian ez dira sartzen departamentu-izaerako egitasmoak edo jarduketak, ez eta etorkia lege-izaerako betebeharreran izanik ere edo, era berean, garrantzitsuak, berritzaileak edo lehentasun politikoekin lerrokatuta egonik, argi eta garbi departamentu-mailako izaria dutenak edo departamentuen eskumen-eremuko ohiko jarduerari dagozkionak ere.



Era berean, Gobernu-Kontseiluaren 2009ko abenduaren 22ko erabakia betetzeko, egitasmo eta jarduera esanguratsuak prestatzeko, izapidetzeko, onartzeko, segitzeko eta ebaluatzeko prozedura baten diseinua ere txertatzen da honako erabaki honetan.

Aipatzekoa da prozedura horretan aurreikusi dela dokumentu bat departamentuen eskueran jartzea, Koordinaziorako Idazkaritza Nagusiaren aldetik. Dokumentu horrek egitasmoen prestaketa bideratu beharko du, hau da, plangintza-lan horri denek modu batean heltzeko ildo batzuk sartuko ditu. Ildo horiek, betiere, ziurtatu egin beharko dute Jaurlaritzak IX. legegintzaldirako duen apustu estrategikoa osatzen duten oinarriko printzipio batzuk txertatzen dituztela, hala nola Jaurlaritzaren irekitasuna herritarren parte-hartzeari buruz, politika publikoen eraginkortasunen ebaluazioarekiko konpromisoa eta jardun publikoaren gardentasuna.

“Sailek Jaurlaritzaren egitasmoak prestatzeko jarraibideak” deituko den dokumentu horrek abiapuntua baino ez du izan nahi, beraren edukiari buruzko hausnarketa-prozesu baterako abiapuntua, eta departamentuen ekarpenak aintzat hartu ondoren, Jaurlaritzaren egitasmoak prestatzeko gidaliburu edo eskuliburu bihurtzea nahi litzateke.

Ondorioz, Lehendakariaren proposamenez, eta Gobernu-Kontseiluak aztertu ondoren, hauxe

#### ERABAKI DU

Lehenengoa.- “2009-2013 IX. Legegintzaldiko Egitasmo eta Jarduera Esanguratsuen Egutegia” onartzea. Egutegi hori honako hauek osatuko dute: egitasmoen zerrendak eta jarduera esanguratsuen zerrendak (I. eranskin gisa erantsiak) eta egutegira erantsitako egitasmo eta jarduera esanguratsu guztien informazio-fitxei buruzko dokumentuak (II. eranskin gisa erantsiak).

Bigarrena.- Eusko Legebiltzarrari igortzea, Jaurlaritzaren jardunaren segimendu egokia egin dezan, aurreko paragrafoan aipatutako dokumentua eta eranskina.

Hirugarrena.- “Gobernuan lehentasunezko diren egitasmo eta jardunak prestatzeko, izapidetzeko, onartzeko eta segitzeko prozedura” izeneko dokumentua onartzea, honako erabaki honi III. eranskin gisa erantsen zaiona.

Laugarrena.- Koordinaziorako Idazkaritza Nagusiak, erabaki hau onartzen denetik hamabost eguneko epean, “Sailek Jaurlaritzaren egitasmoak prestatzeko jarraibideak” izeneko dokumentua igorriko die Jaurlaritzako sailei, plangintzaren prestaketan egin behar duten lana errazteko eta denentzat berdinak diren ildo batzuk sendotzeko, eta horren bidez, gobernu-egitasmoen integrazioa indartzeko. Jarraibide horiek oinarria izango dira “Gobernuan lehentasunezko diren egitasmo eta jardunak prestatzeko, izapidetzeko, onartzeko eta segitzeko prozedura” izeneko dokumentuan ezartzen diren edukiei heltzeko.

Dokumentu horretako edukiak jarraitu beharrekoak izango dira departamentuentzat, gobernu-egitasmoak prestatzen dituztenean; nahiz eta, kasuan kasuko egitasmoen parte-hartzea, gardentasuna, eta segimendua eta ebaluazioa indartzera zuzendutako neurriak ere txertatu beharko dituzten nahitaez.

Bosgarrena.- Jaurlaritzako sailek, sei hilean behin, Egitasmo eta Jarduera Esanguratsuen Egutegian ezartzen diren konpromisoen betetze-mailari eta horren inguruko gorabeherari buruzko azalpen-txostena igorri beharko diote Koordinaziorako Idazkaritza Nagusiari.

Koordinaziorako Idazkaritza Nagusiak beharrezko irizten dion informazio gehigarri guztia eskatu ahal izango die Jaurlaritzako sailei, Egitasmo eta Jarduera Esanguratsuen Egutegiaren segimendua egiteko.

Seigarrena.- Koordinaziorako Idazkaritza Nagusiak segimenduko txosten bat prestatuko du, eta Gobernu-Kontseiluari helaraziko dio, horren ondoren, Legebiltzarrari igotzeko”.

Horrela jasota gera dadin, eta bidezkoak diren ondorioak izan ditzan, ziurtapen hau ematen dut, Gasteizen, 2010eko apirilaren 14an.